

KLINIKA BATEKO ESPERIENTZIA

1

Hor nenbilen ni korrika
prixaz joan-etorrika,
gitxien uste neban orduan
hor noa zatika.
Sendagileak zirika
han estutu, hemen pika,
gustura hartu dot Zorrotzaurren
ostatuz klinika.

2

Bizitza ez da jolasa,
hau neuk dakit neure kasa,
bizitzan beti ezin da, lagun,
dana jota pasa.
Batzuetan da demasa,
bestetan kaxkar, exkaxa;
sarritan karu urteten deusku
hartzen dan arnasa.

3

Dana da isiltasuna
luzeak gau ta eguna,
denporapasa egotea da
hemengo jarduna.
Inguru dana iluna,
bildur ikaraz barruna;
bakardadean zein pozgarria
dan Jesus LAGUNA!

4

Klinikan egin sarrera
eta euren esanera;
nik zer daukadan danak dakie,
ez-jakin norbera.
Kamilan gora ta behera
kalejira arabera,
kezka bat daukat: noiz amaitzen dan
hemengo karrera.

5

Zein eder dan sinismena
euskarri itxaropena,
ez dira berbak, Pertsona bat da
JESUS dau izena.
Entzun bere dei ozena:
"Jakin zeugaz nagoena,
ez izan bildur, eutsi goiari,
hau ez da azkena".

6

Hau ez dakit liburutik,
hau ikasi dot narrutik;
Jesus Jaunaren laguntzaz eta
bere Espiritutik.
Etorria da zerutik,
geuri oratu eskutik
eta errukiz aterateko
mila arriskutik.

7

Sufrimentuen katea
ez da errez etetea,
hobe Jesusen bidea hartu
eta betetea:
"Aitaren borondatea
nigan dedila betea,
Berak bakarrik ahal dau zabaldu
zorion-atea.

8

Gaur edo bihar gaixorik
inor ez dago osorik,
Jesusek ez dau bakarrik izten
maitale zintzorik.
Ez emon oker pausorik
ta ez samindu auzorik;
Lapur Onak lez hartuko dozu
erantzun gozorik.

9

Ederra da zientzia
sufrirentuak kentzia,
lagun, ez ahaztu hauxe dogula
danon erentzia.

Ez bada atrebentzia,
hau da esperientzia:
"Hartu gurutza, jarrai Jesusi
ta pazientzia".

10

Agur klinika barria
gu osatzeko jarria,
zuk eten dozu lotuta naukan
minen lokarria.

Sarrera bildurgarria,
amaiera pozgarria;
zuk ase dozu oraingoz nire
bizi-egarria.

11

Hemen nabil bapo bapo
nire klinikatik kanpo,
latza da baina, esan behar da:
Hori ondo dago.

Gaur ni eskerronez nago
haugaitik da areago:
"klinikarik-ta ezautu ezaz
gaur baino lehenago".

A- Martzel